



## Lehendakariak jakinarazi du Hezkuntza Lege berria urte bat aurreratuko dela:

- Zergatik hainbeste presa?
- Zertarako? Zerbait aldatzeko edo duguna dagoen bezala uzteko?
- Politikoki hain desberdinak diren alderdiek bat-batean adostasuna lortu dute. Zergatik izango da?
- Zein da adostasun maila hezkuntza komunitatearekin?

## Legearen egitasmoak:

- Ikastetxeen kudeaketa deszentralizatu: deszentralizazio osoak desarautzea sakonduko luke ikastetxeen arteko arrakala handituz.
- Udalaren funtzioa areagotu: udalak hezkuntza sistemaren parte dira, ikastetxeko organo gorenean daude eta ikastetxek kanpoko ekintzak antolatzeko eskumen osoa dute. Kontuan hartu behar da udalen kolore politiko eta baliabide ekonomikoen aniztasuna.
- Parte-hartzea sustatu: parte-hartze hori erreal eta ikastetxe guztientzat baliogarria izan dadin alde aurretiko berdintasun baldintza batzuk beharko lirateke. Parte-hartze aldakorrek desberdintasunak areagotuko lituzkete.
- Ikastetxeen autonomia indartu: ikastetxe bakoitzak badu bere proiektu pedagogikoa lantzeko eskumena. Autonomia kontzeptuaren aplikazio gaiztoak egin daitezke ikastetxek ikastetxe, esate baterako, langileen kontratazioan.

## Aurreikusi daitezken ondorioak:

- Udalen eskumena diren azpiegituretan dagoen aldea ikastetxe publikoetan ikaragarria da, zer esanik ez titulartasun pribatuko ikastetxeen azpiegiturekiko dagoena.
- Hezkuntzan ematen den merkatu logikak, ikastetxeen arteko lehia areagotzen du.
- Gurasoek ikastetxea aukeratzeko duten eskubide elitista eta faltsua betiketzen da.
- Ikastetxeen arteko arrakala handituko litzateke.
- Hezkuntza Sailak ardurak tokian toki banatu eta egun hezkuntzan dugun arazo larrienei erantzunik ez lioke emango.
- Batez ere ikastetxe publikoak babesik gabe geratzeko arriskua handitzen da.

## Nola gaintu daiteke publiko/pribatu dikotomia ikastetxeen titulartasuna aldatu gabe?

Ikastetxeen titulartasunetik haratago, zerbitzu publikoa emate hutsagatik publikotzat hartuko lirateke eta diru publikoz %100 subentzionatuta egongo lirateke. Begi-bistakoa da udalari eskumena emanez, ez dela EAEn dugun ikasleen %49 ikastetxe kontzertatuetan matrikulatzea desagertuko.

**Komunitatea eta parte-hartzea indartzeko politiken aldekoak gara STEILASen.**

**Horregatik hain zuzen ere defendatzen dugu Euskal Eskola Publikoa.**

**Komunitatearen indartzeak publikotasunera garamatza.**

# Hezkuntza lege hau norentzat?

